



## Arabako Foru Aldundia lankidetzan arituko da datorren azaroan Gasteizen egitekoa den fauna eta erakinei buruzko nazioarteko sinposioan

Azaroaren 22tik aurrera, adituak direnak biodibertsitatea kontserbatzean eraikinak altxatu eta zaharberritzen direnean Europa Biltzar Jauregian bilduko dira, Arabako Natura Institutuaren eskutik

**Gasteiz, 2018ko urriaren 31.** Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Saila lankidetzan arituko da Fauna eta Eraikinei buruzko Nazioarteko Sinposioaren lehenengo edizioan, zeinaren xedea baita aurrera egitea biodibertsitatearen kontserbazioa hobetzean eraikinak altxatu eta zaharberritzen direnean. Arabako Natura Institutuaren eskutik (ANI), eraikuntza arloko adituak (arkitektoak, enpresak, aparejadoreak), administrazio publikoetako adituak eta ingurumena kontserbatzeko adituak (erakundeak, biodibertsitateko espezialistak eta ingurumen arloko abokatuak) Europa Biltzar Jauregian bilduko dira, azaroaren 22an eta 23an.

Hala nola, Miguel Delibes (Ikerketa Zientifikoetako Kontseilu Goreneko ad honorem irakaslea), Beatriz Sánchez Cepeda (ingurumenean aditua, SEO/BirdLife-ko hiri biodibertsitateko arduraduna) edo Miguel Ángel García Grande eta Laura Granell (arkitektoak). Horiek guztiak programako kideak dira, baina beste aditu batzuk ere egongo dira, baita natura eta hirigintza kontserbatzean erreferente direnak ere.

Sinposioak iraungo duen denboran, oraingo arazoei eta haiek konpontzeko irtenbideei buruz hitz egingo da, eta hainbat kasu aztertuko dira, hala nola faunaren kontserbazioa Arabako eraikin historikoak zaharberritzean, edo sorbeltz arruntaren kontserbazioa Granadako Alhambran.

[Esteka honetan](#) lortuko duzue informazio gehiago Fauna eta Eraikinei buruzko Nazioarteko I. Sinposioan.